

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Zer material behar dugu gure proiektua aurrera eramateko?

Hainbatetan aipatu dugun bezala, gure produktua sare flotagarri bat da, ur gainean flotatzen dagoen zaborra harrapatzea helburu duena. Sare honek itsasoko uraren gainean eta azpian ondo funtzionatzeko diseinatuta dago, eta ingurumena eta itsas-ekosistemak zaintzeko neurri guztiak bete behar ditu. Zaborra harrapatzeko, sare, eremu zabalean egon behar du, uraren gainazaleko zaborra modu onean batzeko eta biltzeko.

Sarearen kalitatea eta funtzionalitatea bermatzeko, materialen aukeraketa onak egin behar dira. Sare hau kalitate handiko, iraunkorrak eta oso kutxatzaileak ez diren materialez osatuta egon behar da, hala nola, erraz apurtzen ez diren eta gogorak diren plastikoak, alambreak edo bestelako material sendoak, uraren baldintzak jasateko gai direnak. Material hauek ez dute bakarrik sarearen iraunkortasuna ziurtatzen, baizik eta itsasoko ingurunean euki ahal dituzten ondorioetaz ere salbatzen dituzte.

Gainera, sare hau, ur gainean flotatzen egongo da zaborra harrapatzeko, horregaitik, leku jakin batean finkatuta egon behar da, baina aldi berean, mugitzeko eta korronteekin egokitzeko prest egon behar da. Horretarako, lehen esan bezala, sarearen egitura egonkorra izan behar da. Sare hori itsas hondoan ainguratuta edo boiei lotuta egon daiteke, horrela, uraren mugimenduek eta korronteek ez dute sare apurtuko edo mugituko.

Bestalde, sarearen mantentze-lanak garrantzitsuak dira ere. Zaborra eta bestelako objektuak, hala nola, landareak, sarea guztiz blokeatu ez dezaten garbitu eta zaindu behar dira. Sarearen mantenimendua zaindu behar da, sarea ez apurtzeko eta ondo funtzionatzen jarraitzeko. Sarean egon daitezkeen hondakinak kendu eta garbitu beharko dira, eta beharrezkoa bada, zuloak edo apurtuta egon daitezkeen lekuetan konponketak egin beharko dira.

Azkenik, ingurumenaren babesa ezinbestekoa da. Sareak ez du itsasoko animaliei edo ekosistemari kalterik egin behar. Horregatik, erabiliko ditugun plastikoak ingurumenarekiko ez dira kaltegarriak izango, eta, horretarako, plastiko berrerabilien bilketa egingo da. Ekosistemen babesa ziurtatzeko, plastiko berrerabilgarri eta birziklagarriak bilatzen saiatuko gara. Horretarako, plastikoarekin lan egiten dituzten enpresa eta birziklatzaile desberdinekin kontaktuan jarriko gara, eta haien materialak ikertuko ditugu, ahal bada, gure produktuan erabiltzeko.